

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2010eko EKAINAREN 10ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2010eko ekainaren 10ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 18.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola


ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Gotzon Jauregi Sarasola
Karlos Irazu Muñoa
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

DAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
 - 2010eko maiatzaren 6an egindako ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen politikaren aldeko konpromisoaren onspena, hala bada.
4. Euskal Autonomia erkidegoko tokiko iraunkortasunerako konpromisoari adierazitako atxikimendua; Udalsarea 21 iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea finkatzea, hala bada.
5. 2009-2010 Auzolan programa dela eta Tolosaldea Garatzeko egin beharreko ekarpena burutzea, hala bada.
6. Larraulgo Hezkide eskola etxeko teilatua eraberritzeko baimena eskaera, Hezkide Eskola.
7. Beobidegain auzoko jabeen eskaera aztertu, hala bada.
8. Larrunbide-Etxeberri herri bidea erabiltzeko baimena eskaera, egurra ateratzeko. I.S.Z.
9. Beobide-buru etxearen atzeko terrenora doan bidea hormigonatzeko baimena eskaera, I.U.A.
10. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa sailak 2010eko maiatzaren 28an igorritako idatziari erantzuna, hala bada.
11. Fakturak eta ordainketak.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

12. Beste batzuk.

13. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2010 urteko maiatzaren 6ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

15/2010 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 25koa, Erain enpresari “levantamiento topográfico del casco urbano y zona limitrofe” egiteko kontatua esleitzea, ebazten duena.

16/2010 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 27koa, 2010 urteko 1. Kreditu Aldaketa onestea, ebazten duena.

17/2010 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 28koa, Martin Eceiza, Lurkide, Andatza, Construcciones Echaide eta Murgil enpresak aurkeztu duten dokumentazioa ontzat hartzea, ebazten duena.


18/2010 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 8koa, Larraulgo Udalak, DINA 7 elkarterari Larraulgo ekomuseoa, produktu turistiko batean bihurtzeko beharrezkoa den ikerketa egiteko babesa ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN POLITIKAREN ALDEKO KONPROMISOAREN ONESPENA, HALA BADA

Eusko Jaurlaritzak 2002ko ekainaren 4an onartutako 2002-2010rako Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategiak markatzen ditu helburuak Euskal Autonomia Erkidegoak iraunkortasunerantz aurrera egin dezan. Esandako estrategian jasotzen da, 3.baldintzako-*Merkatua akuilatzea Ingurumenaren alde egin dezan*- helburu modura, *Irizpide ekologikoak aintzat hartzen dituen erosketa publiko politika bultzatzea*.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontratazio publikoan ingurumen irizpideak sartzea hiru arrazoigatik da garrantzitsua, batez ere:

-Euskal Administrazio Publikoaren erosketa eta kontratazio bolumena, gutxi gorabehera, EAEko BPGaren % 14 inguruan kokatzen da; beraz, ingurumenaren ikuspegitik produktu eta zerbitzu hobeak erostera aldatzeak eragin garrantzizkoa izan dezake produkzio eredu iraunkorrago baterantz berbideratzeko eta enpresen ingurumen portaera eta ekoizten dituzten produktuen ingurumen kalitatea hobeak izan daitezen laguntzeko.

-Bestalde, erosketa eta kontratazio publiko berdea, oro har ulertuta, oso tresna eraginkorra da administrazioaren beraren ingurumen talka murrizteko eta, era horretan, guztion ongizatean eta bizi kalitatean hobera egiten laguntzeko.

-Azkenik, erosketa eta kontratazio publiko berdeari esker, aldarrikatzen dena praktikan jar daiteke, bai eta herritarrei eskatzen zaien iraunkortasun eta ingurumenarekiko errespetu betebeharrekin koherente izan ere.


Gainera, Larraulgo Udalak, jaso du helburu hori bere Ekintza Plan 21ean.

Horregatik guztiagatik, Larraulgo udalak, aho batez, *Udaleko Erosketa eta Kontratazio Berde Politika garatzea* erabaki du, baliabide naturalen kudeaketa arrazionalagoa eta ingurumen aldetik egokiagoa lortzeko lagungarri izan dadin. Ondorengo hauek hartuko ditu kontuan:

1. Pixkanaka, ingurumen irizpideak sartuz joatea administrazioiko sailek eta mendeko organismoek produktuak erosi edo zerbitzuak kontratatu behar dituztenerako.
2. Gizarte irizpideak pixkanaka sartzea udalaren produktu eta zerbitzuak Kontratatzekeo garaian.
3. Laneko Plan bat idaztea ondorengo hauek guztiak finkatuko dituena: lehentasunak, neur daitezkeen helburuak, jarraipen adierazleak eta helburuak lortu diren ala ez egiaztatzekeo sistemak.
4. Barnerako komunikazio Plan bat prestatzea, Udalean ari diren pertsonentzat, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berde Politikaren berri emateko.
5. Kanpoko komunikazio Estrategia bat prestatzea hornitzaileentzat, enpresentzat eta herritarrentzat oro har, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berde Politikaren helburuak eta xedeak lortzeko lagungarri izan dadin.
6. Larraulgo Udalaren mendeko Lan-talde bat sortzea. Haren ardura izango da Erosketa eta Kontratazio Berde Publiko Politikan aurreikusitako ekintzak aurrera eramatea.

LAUGARREN PUNTUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNERAKO KONPROMISOARI ADIERAZITAKO ATXIKIMENDUA; UDALSAREA 21



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IRAUNKORTASUNERAKO EUSKAL UDALERRIEN SAREA FINKATZEA, HALA BADA

Larraulgo Udalak Aalborg-eko Ituna sinatu du, eta udalerrian Tokiko Agenda 21 programa martxan jartzeko konpromisoa hartu du.

Hala, Tokiko konpromisoaren bidez iraunkortasun globalaren alde egiteko etengabeko hobekuntza-prozesua jarri du abian. Eginkizun horretan, udaletako Tokiko Agenda 21ak indartzea helburu duen Sareko kide izateak dakartzan onurak azpimarratzen ditu Udalak.

Hargatik, Larraulgo Udalak atxikimendu honetan adierazitako konpromisoa hartzea ERABAKI DU, 2010eko ekainaren 10ean.

Aurrez adierazitakoarekin bat, Larrauleko Udalak ADIERAZTEN DU:

“EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNERAKO KONPROMISOA; UDALSAREA 21 IRAUNKORTASUNERAKO EUSKAL UDALERRIEN SAREA FINKATZEA” dokumentuari atxikimendua agertzen diola eta bere gain hartzen dituela konpromiso horretatik eratorritako erantzunkizunak”

BOSTGARREN PUNTUA

2009-2010 AUZOLAN PROGRAMA DELA ETA TOLOSALDEA GARATZENI EGIN BEHARREKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2009ko abenduaren 12ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean aurreratzen denaren arabera, Auzolan programaren barruan Larraulgo Udalari egin zaion lanengatik dagokion ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 1.000 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Mendi eta bide bazterren garbiketa 2009-2010 Auzolan Programaren barruan, Tolosaldea Garatzeni 1.000 eurotako diru ekarpena egitea.

BIGARRENA: 1.000 eurotako gastua onestea.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO HEZKIDE ESKOLA ETXEKO TEILATUA ERABERRITZEKO BAIMENA ESKAERA, HEZKIDE ESKOLA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik J.E.S. jaunak Hezkide eskolaren izenean eginiko eskaera, non Larraulgo Hezkide eskola etxeko teilatua eraberritzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2010eko maiatzaren 25ean Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak eginiko txostenean dioena:

“ LARRAULGO HEZKIDE ESKOLA (ERROTERETXE) ETXEKO TEILATUA ERABERRITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTEN TEKNIKOA

J.E.S. jaunak, Hezkide eskolako zuzendari eta ordezkari bezala, Erretoretxearen teilatua eraberritzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontu bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Erretoretxea edo Hezkide Eskolako etxea, Larraulgo lur hiritargarriaren barruan dago. Larraulgo araudiaren “D” dokumentuaren arabera eta Euskal ondarearen inbentarioaren barruan, balio bereziko eraikina bezala katalogatua dago, oinarrizko kontserbazio batekin.

Aurkezten den dokumentuan, teila aldatzea proposatzen da, etxearen kanpo itxura eta bolumena aldatu gabe.

Teila zaharrak kendu eta itxura berdineko berriak jarriko dira, aurretik, gaur egun solte dauden zuntz-zementuzko estalkiak aseguratzen direlarik. Teilatura irteteko sabai leiho bat jartzea proposatzen da ere.

Eraikinen kanpo itxura markatzen duen araudia, “ B” dokumentuaren ordenantzetan azaltzen da, bereziki 25º,34º eta 37º artikuluetan.

Artículo 25.-Cubiertas

Las construcciones se deberán resolver con una única cubierta a dos, tres o cuatro aguas. La pendiente máxima de la cubierta será del 35%. La altura máxima de la cubierta vendrá determinada por la unión de las líneas inclinadas que arrancan de los aleros de dos fachadas opuestas. El vuelo máximo del alero respecto de cualquier fachada será de 1,00 mt, exceptuando las fachadas principales en las que se podrá llegar hasta 1,20 mt.

En la rehabilitación de los edificios existentes, no se podrán realizar obras que modifiquen la disposición y forma de las cubiertas actuales.


Artículo 34.-Iluminación y ventilación de las piezas habitables

No se permitirá la iluminación ni ventilación mediante huecos contruidos en la cubierta, a excepción de aquellos huecos de acceso al tejado (uno por vivienda).

Artículo 37.-Materiales a emplear en los edificios

Los materiales a emplear en las nuevas construcciones, o reforma de edificaciones existentes serán los tradicionales en el municipio:

Cubiertas: Se terminará con teja cerámica en su color natural o teja de hormigón de color y textura similares a la cerámica. Se prohíbe la utilización de materiales como las placas de fibrocemento, asfálticos, pizarras, chapas metálicas, etc.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

En elementos de pequeña superficie (miradores, vuelos) podrá utilizarse materiales nobles como el cobre para la cubrición de los mismos.

Beraz, teilatua eraberritzearen lanak aurreko artikuluetara egokitzen direnez, udal baimena ematea egokia iruditzen zait.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.E.S. jaunak, Larraulgo Hezkide eskolaren izenean eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Hezkide eskola etxeko teilatua eraberritzeko eskaera onestu, betiere Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

BEOBIDEGAIN AUZOKO JABEEN ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Beobidegain jabeen erkidegoak, 2010eko martxoan bilduta, erabaki duela luzatzea ondorengo


“**ADIERAZPENA:**

Eguraldi txarra egiten duenean gure etxeek euria eta haizearen indarra bete-betean jasotzen dutela, iparraldeari begira dauden jabegoetan batik bat. Eguraldiko baldintza latz horien ondorioz, etxeko hormek eta leioek egoera oso gogorrak pairatzen dituzte neguko eta udazkeneko ekaitza egunetan.

Etxe barruko giroan ere nabaria da eguraldiaren zakartasuna, izan ere, etxeko tenperaturak oso hotzak izaten dira eta zaila eta garestia egiten da etxea goxo mantentzea.

Eguraldi onarekin, aldiz, kontrako egoera ematen da hegoaldeari begira dauden etxeetan, bero gehiegi zenbait momentutan.

Horregatik, Jabeen Erkidegoak gehiengo osoz erabaki du luzatzea Larraulgo Udalbatzarrari ondorengo



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ESKAERA:

Baimena ematea erkidegoko etxeetan terrazan gaineko estalpe egonkor bat jartzeko. Estalpe horrek eguraldi txarraren aurrean babes maila altuagoa emango die etxei, gure eguneroko bizimodua eroso eginez. Eguraldi onarekin, berriz, estalpeak itzala eta eguzkiarengandik babesa emango du.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Beobidegain jabeen erkidegoak eginiko eskaera ukatu, Etxebizitzen “egiteko proiektuaren” arabera, gaur egungo partzela bakoitzaren eraikigarritasuna agortua gelditu delako.

BIGARRENA: Beobidegain jabeen erkidegoari jakinarazi, Larraulgo Herria antolatzeke Plan orokorra idazten ari dela eta bertan aztertuko dela egindako eskaera hau.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Beobidegain jabeen erkidegoari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

LARRUNBIDE-ETXEBERRI HERRI BIDEA ERABILTZEKO BAIMENA ESKAERA, EGURRA ATERATZEKO. I.S.Z.

Ikusirik I.S.Z. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Larrunbie-Etxeberri-ra doan herri bidea erabiltzeko baimena eskaera egiten duen, egurra atera behar duelako.


Ikusirik 2000ko uztailaren 27an egindako Udalbatzak harturiko erabakia, non pinuak ateratzeko baimena ematearekin batera, baimena eskatzaileei, herribideetan sor ditzazketen kalteez erantzutearren 900 eurotako bermea jartzea eskatzea onestu zela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.S.Z. jaunari Larraulgo Larrunbide-Etxeberri-ra doan herri bidea erabiltzeko baimena ematea, betiere lan hauek egiten hasi aurretik, Larraulgo Udaletxean 900,00 eurotako fidantza jarri beharko duelarik, herri bidean gerta daitezken kalteei aurre egiteko.

BIGARRENA: I.S.Z. jaunari erabaki honen berri ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BEDERATZIGARREN PUNTUA

BEOBIDE-BURU ETXEAREN ATZEKO TERRENORA DOAN BIDEA HORMIGONATZEKO ETA ZOLA BAT EGITEKO BAIMENA ESKAERA, I.U.A.

Batzarkideak aho batez gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute.

HAMARGARREN PUNTUA

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAK 2010 eko MAIATZAREN 28an IGORRITAKO IDATZIARI ERANTZUNA, HALA BADA.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzeko hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa sailak 2010eko maiatzaren 28an igorritako idatzia.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Eusko Jaurlaritzako hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa sailak 2010eko maiatzaren 28an igorritako idatziari erantzuna ematea. Ondorengo izango delarik:

“ Sailburu anderea:

Maiatzaren 28an igorritako idatziari erantzunez ondorengo adierazten dugu:

Zure sailak, apirilak 8an sinatutako eta apirilak 27 irteera data duen ebazpenean 2010/2011 ikasturtean Larraulgo ikastetxea modu independentean jarduten hasiko zela onartu zuen. Otsailaren 3ko 21/2009 dekretuan ezarrita dauden baldintzak betetzen ditugulako.

Ikusirik Hezkuntza sailak goran aipatutakoa betetzen ez duela, eta gure herrian hezkuntza zerbitzua bermatzeko, Larraulgo Udalak Hezkuntza sailari exijitzen dio bete ditzala bere garaian hartutako konpromisoak.

Guzti honegatik zurekin hitzordua eskatzen jarraitzen dugu, gure herrian dagokigun ikastetxea berriro zabaltzeko.”


HAMAIKAGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

UROLA

9,51



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

KIROLZER	98,40
IZFE	519,68
ZALDUA	76,44
FERRETERIA BARBE	118,22
CARPINTERIA ANDOLA	32,71
IBERDROLA	111,72
MANPEL	23,90
IBERDROLA	17,71
REPSOLGAS	99,38
REPSOLGAS	315,15
IBERDROLA	9,70
IBERDROLA	163,61
REPSOLGAS	55,55
MOVISTAR	17,44
MOVISTAR	99,64
MOVISTAR	87,61
MOVISTAR	20,12
IBERDROLA	38,94
IBERDROLA	16,37
IBERDROLA	125,99
EUSKALTEL	173,76
IZFE	519,68
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	29,00
UROLA	160,01
SOROA ARQUITECTOS	5.874,99

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,


ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **8.815,23** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

12.1. LARRAULGO GURASO ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA.

Ikusirik 2010eko ekainaren 8an egindako guraso bileran ondorengoa erabaki dela eta Larraulgo Udal Taldeari jakin arazten zaiola:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1.-Juan Landa abokatuak aurkeztutako proposamenaren lehen zatiak, espedienteari dagokionak, aurrera egin behar duela.

2.-Espedientea tramitatu eta bertan agertzen denaren inguruko azterketa egiteko aurkeztu duen aurrekontuaren gastua Larraulgo Udalari dagokiola, Larraulgo Eskola beste Udal zerbitzu bat gehiago den aldetik. Hala ere, egungo egoera zein den ikusirik Larraulgo Guraso Elkarteak aurkeztutako espedienteari dagokion aurrekontuaren erdiari aurre eginez laguntzea erabaki duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2010eko ekainaren 8an egindako guraso bileran hartutako erabakia onartzea, hau da, Juan Landa abokatuak aurkeztutako proposamenaren lehen zatia onartzea, bere kostua Guraso Elkartearen eta Larraulgo Udalaren artean ordainduko delarik, bakoitzak kostearen erdia, hau da, 750 euro bakoitzak.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Larraulgo Guraso Elkarteari eta Juan Landa abokatuari ematea.

12.2. KARLOS IRAZU ZINEGOTZIAK EGINIKO PROPOSAMENA

Ikusirik Karlos Irazu zinegotziak proposatzen duela Udararen bilerak eta Udalbatzak arratsaldeko 7retan egitea. Udara bukatzean berriro bueltatuko delarik aurreko ordutegira.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEA:


LEHENA: Asteroko bilerak eta Udalbatzak arratsaldeko 7retan egitea, Udarako denboraldian.

BIGARRENA: Uztailean bi Udalbatza egitea bata uztailaren 1ean eta bestea uztailaren 29an. Abuztuan ez delarik Udalbatzarik egingo.

HAMAIRUGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira azaltzen.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 20.10 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)



ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik I.U.A. jaunak eginiko eskaera, non Beobide-buru etxearen atzeko terrenora doan bidea hormigonatzeko eta bertan zola bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2010eko ekainaren 10ean Udal Aholkulari teknikoa den Eba Erkizia Brion Arkitektuak eginiko txostenean dioena:

“I.U.jaunak, Larraulgo Beobide-Buru etxearen atzeko lursailean dagoen bidea hormigonatzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Lursaila Beobide-Buru baserriaren atzealdean kokatzen da, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan.

Aurrekontuan, 276,20 m²-ko azalera duen hormigoizko zola bat egiteko asmoa azaltzen da. Zolak 15 cm-ko lodiera izango du eta euri urak bideratzeko kanalak egingo dira.

Beobide-Buru etxearen atzealdeko urbanizazioaren konponketa hau baserriaren inguruko lurren ezugarriak ez aldatzeko lursailaren iragazkortasuna zainduko da.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- I.S.A. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Beobide-Buru baserriaren atzeko terrenora doan bidea hormigonatzea eta zola bat egiteko baimena eskaera onestu, betiere Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.